

## Azaroaren 25ari begira

Berdintasun Sailak azaroaren 25ari begira ditu begiak, Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko eguna baita. Elkarretaratzea egingo dute 19:00etan Zubimuzun.

Udala eta Berdintasun Foroa Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunekeo ekitaldiak antolatzen ari dira buru belarri. Azaroaren 25ean, 19:00etan, Zubimuzun, elkarretaratzea egingo dute, emakumeek jasaten duten indarkeriaren aurkako jarrera salatzen. Euskaraz, gazteleraz, frantsesez, arabieraz eta urduz, irakurriko da dokumentu bat. Elkarretaratzearen aurretik, 17:00etan, Foroaren bilera egingo dute Udaletxean.

### Hitzaldia

Azaroaren 24an, berriz, hitzaldia antolatu dute Udalak eta Asmube elkarteak, 18:00etan, Udaletxeko batzar aretoan. Emakundeko Irune Lauzirika teknikariak 'Emakumeak indarkeria sexistari aurre egiten: estrategiak eraikitzen' hitzaldia eskainiko du. Euskaraz izango da, bat-bateko itzulpenarekin.



Beasainen genero indarkeria salatzen egindako elkarretaratzea.

### Berdintasun Plana

Eragile desberdinen ekarpenak jasota, Berdintasun Planeko behin-behineko dokumentua Emakundera bidalita dago.

El 25 de noviembre, Día Internacional de la Eliminación de la Violencia contra las Mujeres, se realizará una concentración a las 19:00 en Zubimuzu. Se leerá un documento, en euskara, castellano, francés, árabe y urdu. Antes de la concentración, a las 17:00, se celebrará la

próxima reunión del Foro por la Igualdad. Para la víspera, el departamento de Igualdad y la asociación Asmube han organizado una charla con la técnica de Emakunde, Irune Lauzirika: 'Las mujeres en contra de la violencia machista: construyendo estrategias'. La charla será en euskara, con traducción simultánea.

Por último, señalar que el documento provisional del primer plan de Igualdad se ha enviado a Emakunde.

## Lanpostuak sortzeko ahaleaginean

Enplegua sustatzeko helburuarekin jarraitzen du lanean Beasaingo Udalak. Hori dela eta, irailean herriko beste zazpi langabetu kontratatu dira, aldi baterako. Uda aurretik, beste sei kontratatu ziren.

Gaur egun bizi dugun egoera ekonomikoaren aurrean, Beasaingo Udalak garrantzia berezia ematen dio langabetuen kontratazioari. Bide horretan, Euskal Enplegu Zerbitzuak diruz lagundutako enplegua sustatzeko toki ekintzen programaren barruan, irailean beste zazpi langabetu kontratatu dira, aldi baterako: ondasun ukiezinaren berreskurapenerako 2 teknikari (%60ko lanaldian, 6 hilabetez), euri sarearen egokitzapena egiteko 3 peoi

(lanaldi osoan, 4 hilabetez), gizarte ongizateko teknikari bat (%80ko lanaldian, 6 hilabetez) eta administrari bat (%80ko lanaldian, 6 hilabetez).

Uda aurretik, beste 6 kontratazio egin ziren: 2 TAO zerbitzua kudeatzeko enpresak berak egindakoak, 2 igeltsero eta peoi bat, eta bat kanpoko igerilekuko liburutegi zerbitzurako.

Illo horretatik, iaz, berriz, 4 pertsona kontratatu ziren udaleko brigadarekin batera lanean aritzeko.

El Ayuntamiento de Beasain continúa en la línea de crear nuevos puestos de trabajo. En septiembre empezaron a trabajar siete nuevas personas paradas (antes de verano se contrataron seis): dos personas en la recuperación de inmuebles inmateriales, tres peones acondicionando la red de aguas fluviales, una persona en Bienestar Social y una en la administración.

En 2013 se contrataron cuatro personas paradas del municipio.

# Nafarroa hegoaldeko euskalgintza laguntzeko saskiak

Nafarroako Erriberako ikastolak, AEK eta Hamarratz proiektua diruz laguntzeko Nafarroako produktuz osatutako saskiak eskura daitezke 50 euroan, azaroak 12 baino lehen.

Euskara ofiziala ez den Nafarroako zonaldeko euskalgintza laguntzeko egitasma da Errigorra saskiarena. Zazpiak Bat, Ikastolak, Sortzen, AEK eta Errigorak elkarlanean, 'Nafar hegoaldeko uzta, euskarari puzka' kanpainarekin, aurten ere, Nafarroako produktuz osatutako saskiak salduko dira, 50 euroan. Iaz bost ekoizlek osatu zuten saskia; aurten, 10 izango dira ekoizleak. Olioak, piperrak, potxak, kardoak, mahats zukuak, orburuak, zainzuriak, tomate saltsak, barazki kremak eta ardoak osatzen dute saskia.

Nafarroa hegoaldeko euskalgintzari laguntzeaz gain, kanpainak badu beste helburu bat: Nafarroako produktuak ezagutzera eta kontsumitzea. Cascanteko Olioak, Ablitaseko zainzuriak edo Sartagudako piperrak adibidez. Iazko kanpainan, 8.000 saskitik gora saldu ziren Euskal Herrian eta 112.000 euro lortu ziren Nafar hegoaldeko euskalgintzarako. Lodosako ikastolaren egoera ekonomiko itogarria zertxobait arintzeko, Erriberako helduen

alfabetatzea sustatzen duen kanpaina gauzatzeko eta 'Euskaraz bizi eta ikasi' egitasmorako erabili zen. Aurten, saskiekin lortzen den dirua ere, Erriberako ikastolara, AEKra eta 'Euskaraz bizi eta ikasi' herri ekimenaren Hamarratz proiektura bideratuko dira.

Con el objetivo de ayudar económicamente a las ikastolas y euskaltegis de la Rivera Navarra se pueden comprar packs compuestos de los productos de Nafarroa, por 50 euros (aceites, pimientos, cardos, espárragos, vino, salsa de tomate, pochas, cardo, alcachofas...).

Los pedidos se pueden realizar en AEK, en la Ikastola Andramendi, y en los bares Basakana, Arrano y Antzizar.

## Saskiak

> Azaroaren 12a baino lehen eskatu behar dira saskiak, ondorengo lekuetan: Goiztiri AEK-n, Arrano, Basakana eta Antzizar tabernetan, eta Andramendi Ikastolan.



## •• .eus

Beasaingo Udalaren webgunearen domeinua .eus izateko eskaera egin da dagaoneko Udalak. Herriko merkataria, enpresak eta elkar-teei ere eskaera egiteko deia egiten die. [www.domeinuak.eus](http://www.domeinuak.eus) webgunean egin daiteke eskaera, azaroak 18 baino lehen. Euskara eta euskal kultura sustatu eta Euskara eta Euskal Kulturaren Komunitatea kohezionatzea da .eus-en helburua.

El Ayuntamiento anima a las empresas y comercios del municipio, a registrar su página web en el dominio .eus, con el objetivo de fomentar el euskara y la cultura vasca y de cohesionar la Comunidad Lingüística y Cultural Vasca en Internet.

## >Euskarazko prentsa sustatzeko kanpaina

Beasaingo Udalak tokiko euskarazko hedabideei bultzada eman nahi die, izan prentsa idatzia, irratia edo telebista. Izan ere, hedabide horiek funtsezko papera betetzen dute euskararen normalizazioan. Horrela, oraingo honetan Goierriko Hedabideak taldearen ekimenez, Beasaingo Udalak eta Goierriko Hedabideak taldeak (Goierriko Hitzza eta Goiberri) kanpaina bat abiatu dute elkarrekin, herritarrek Goierriko Hitzza eta Goiberriko harpidedun egitera gonbidatuz. Lehen fase batean 2007. urtetik aurrera eraikitako etxebizitzetan egiten ari da bi produktuen banaketa. Bigarren fase batean, 2007. urtea baino lehen eraikitako etxebizitzetan egingo da banaketa, Hitzaren diseinu berria aprobetxatuz. Udal euskaltegiarekin batera lanketa berezia egingo da.

El Ayuntamiento hace un llamamiento para que la ciudadanía consuma el periódico Goierriko Hitzza y el semanal GoiBerri, con el objetivo de impulsar los medios de comunicación locales en euskara. Para ello, en colaboración con Goierriko Hedabideak, se está realizando una campaña para obtener nuevas suscripciones.



Udal Euskaltegiko ikasleak Goierriko Hitzaren eta GoiBerriren bulegoa ezagutzen izan ziren urriaren 30ean.

## II. Sagar tarta lehiaketa



Azaroaren 4an II. Sagar Tarta lehiaketa egingo da Beasainen. Tartak goizeko 10:00etarako eraman beharko dira azoka plazara. Parte hartzaile bakoitzak tarta bakarra aurkeztu ahal izango du 09:00etatik 10:00etara bitartean.

Epaimahaiak zaporea, kreatibitatea eta aurkezpena baloratuko ditu. Bi sari banatuko dira, 11:00etan: bertako base-rietako produktuez osaturiko saskiak. Epaimahaiaren dastaketa bukatutakoan, ekitaldira gerturatutako jendeak tartak dastatzeko aukera izango du.

El día 4 de noviembre tendrá lugar el II. Concurso de tarta de manzana. Habrá que llevar la tarta ya preparada y presentarla entre las 09:00 y las 10:00 en el plaza del mercado de Beasain. El concurso comenzará a las 10:00 y se podrá presentar tan sólo una tarta por participante. Habrá 2 premios: lotes de productos de los caseríos locales. Al finalizar la cata del jurado, las tartas serán degustadas por el público asistente al evento.



## Tokiko Agenda 21 en bilera

Azaroaren 4an, 18:30ean, Udaletxeko batzar aretoan, Tokiko Agenda 21eko urteko bigarren bilera egingo da. Ingurumen Sailak 2014an aurrera eramandako ekintzak baloratuko ditu eta 2015erako ekintza berriak proposatuko ditu. Tokiko Agenda 21 en helburua garapen iraunkorra lortzeko trantsizioa bideratzea da, «denen artean Beasain herri jasangarri bat egiteko helburuarekin».

El 4 de noviembre, a las 18:30, en el salón de plenos del Ayuntamiento, se celebrará una nueva reunión del foro de la Agenda 21. El Departamento de Medioambiente propondrá actividades para el año que viene.



## Aldaketak izango dira 2015. urteko ordenantza fiskalean

Urriaren 16ko udal batzak 2015eko udal tasak eta zergak onartu zituen. «Orokorrean tasak eta zergak ez dira aldatzen, ez dute igoerarik izango, helburua egungo egoera ekonomikora egokitzea izan baita», dio Koldo Agirre alkateak.

Eraikuntza instalazioen eta obren gaineko zergetarako hobaria izango dira. Batetik, 2013-2016 renove planean sartzen direnentzako eta gazte lokalen egokitzapenerako %95eko hobaria izango da tasan. Ibilgailuetan, ingurumenerako hain kutsakorrek ez diren erregaiek erabiltzen dituztenek %50eko hobaria jasoko dute. Zabor bilketari dagokion zerga, «organikoa bereizten duten edo ez dutenaren arabera izango da: 80 edo 110 euro». Establezimendu irekiera eta jarduera espedienteetan, tarifak %50 jaitsi ditu Udalak, «merkataritza sustatzeko helburuarekin».

El pleno del 16 de octubre aprobó la ordenanza fiscal de 2015. Según el alcalde Koldo Agire, «en general, no ha habido cambios ni subidas. El objetivo ha sido adecuar las tasas a la actual situación económica». Los principales cambios son los siguientes: bonificación del 95% para el plan renove y para remodelar los locales juveniles; y bonificación del 50% para los que utilicen vehículos de combustible menos contaminante. Respecto a la tasa de los residuos, «los que separen el orgánico pagarán 80 euros y los que no lo separen 110 euros». Con el objetivo de potenciar el pequeño comercio, se han rebajado en un 50% las tarifas de los expedientes de apertura y de actividad de los establecimientos.

## Egutegi fiskala

Datozen asteetan lau zerga eta tasa ordaindu beharko dira: hondakinen zerga, abenduaren 1era bitartean; Azokaren 4. hiruhilekoa, azaroaren 30era arte; Jarduera Ekonomikoen gaineko zerga, azaroaren 10era arte; eta herri bidean dauden kioskoen dagokiona, abenduaren 1era arte.

La tasa de la recogida de basuras se deberá pagar antes del 1 de diciembre, el 4º trimestre de la tasa del Mercado hasta el 30 de noviembre, el Impuesto sobre las Actividades Económicas hasta el 10 de noviembre, y la tasa correspondiente a los quioscos en la vía pública, hasta el 1 de diciembre.



> Argitaratzailea: **Beasaingo Udala**  
 > Helbidea: **Loinazko San Martin plaza**  
 > Posta elektronikoa: **udala@beasain.net**

> Telefonoa: **943-02 80 50**  
 > Webgunea: **www.beasain.org**  
 > Diseinua: **Bidera Zerbitzuak**

> Lege gordailua: **SS1284-2008**



## Loinatz abesbatzak 75 urte

El 8 de diciembre de 1939 la *Coral Loinaz* celebró su primer concierto, con el director Pedro Jose Iguain. Después de 75 años, Loinatz abesbatza tiene nuevos proyectos entre manos y muchas ganas de cumplir muchos años más.

Gizonezkoz osatutako taldea zen lehenengo urteetako *Coral Loinaz*. «Abesbatzako ahots txuriak La Salleko tipleak ziren», dio Josetxo Zufiaurrek. «Ni 11 urtekin sartu nintzen, 1945ean. Bi urte egin nituen; soldadutza bukatutakoan berriz itzuli nintzen», gaineratu du. Lehenengo zuzendaria Pedro Mari Iguain izan zen, «1950. urtera arte egon zen, familia osoa Argentinara joan arte». Garcia Basocok eta Rafael Brizek zuzendu zuten abesbatza hurrengo urteetan, 1959an Migel Irizarrek ardura hartu zuen arte. «1971ra arte aritu zen, San Jose bezperan bihotzekoak jota hil arte». *Coral Loinazen* lehenengo etapa Irizarrekin batera bukatu zela esan daiteke.

Juantxo Alkaiagak, Patxi Lasak eta Xabier Sarasolak, Loinatz abesbatza berpiztu zuten, 1986an. Belen Callejo orduan hasi zen. Sarasolak 26 urte egin zituen batutari eragiten; 2012tik Junkal Guerterok du abesbatzaren

ardura. Fama handia izan du betidanik Loinatz abesbatzak: adibidez, Pablo Sorozabalek *Coral Loinaz* aukeratu zuen bere '20 euskal kantu' diskoa grabatzeko.

### Elkarlaneko proiektuak

Herri mailan ere leku garrantzitsua betetzen du Loinatz abesbatzak. Belaunaldi desberdinen arteko topalekua izan da eta da Loinatz abesbatza Belen Callejok eta Irati Otamendik nabarmendu nahi izan dutenez. Urtean hiru kontzertu egiten dituzte herrian, eta atzerriko abesbatzen lana herrian erakusteko ahalegina ere egiten dute. Gipuzkoako beste abesbatza eta musika talde desberdi-

nekin elkarlanean «bakarrik iritsiko ez liratekeen» proiektu ugarietara iristen ari dira. Callejok eta Otamendik aurreratu dutenez, «Beasaingo festetan Sorotan Bele taldeko Mikel Errazkin flauta jolearen lau kantu estreinatuko ditugu. Junkal Guerre-

### Kronologia

- 1939. Parrokiako koruak eta herriko beste kantuzale batzuk elkartu ziren. *Coral Loinaz* abenduaren 8an aurkeztu zen jendaurrean.
- 1948. Gipuzkoako I. Abesbatza lehiaketan 1. saria irabazi zuten.
- 1964. Sorozabal. 20 euskal kantu diskoa grabatu zuten.
- 1986. Loinatz abesbatza izenarekin ibilbide berria hasi zuen Xabier Sarasolaren zuzendaritzapean.
- 1990. Concurso Avilésen 3. saria.
- 1992. Ejea de los Caballerosen 2 sari.
- 1995. Cd-aren grabazioa.
- 1999. Ejea de los Caballerosen 1. saria.
- 2003. Noveldako musika erlijioso lehiaketan 2. saria.
- 2007. Burgosko Antonio Jose lehiaketan 1. saria.

rok, Eva Ugaldek, Josu Enberdinek eta Javi Bustok egin dituzte moldaketak».

### Ospakizuneko kontzertua abenduan

75. urteurren borobila ospatzeko kontzertu berezia prestatzen ari dira abenduaren 20rako, Narama abesbatza gaztearekin batera eta «Loinatz abesbatzaren ibilbidean parte hartu izan dutenekin».

### Concierto

> El 20 de diciembre Loinatz abesbatza celebrará un concierto especial con coralistas de diferentes generaciones.